OIARTZUNGO UDALA

OIARTZUNGO BABESGABEZIA ETA ARRISKU ARIN EDO ERTAINEAN DAUDEN ADINGABEEI ETA BERAIEN FAMILIEI ZUZENDUTAKO ESKUHARTZE ZERBITZUAREN KONTRATUA PROZEDURA IREKIA BIDEZ.

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

ESPEDIENTE KODEA: 2025KO150001

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen oinarrizko xedea da arautzea, Oiartzungo Udalak bere gizarte politikaren barruan, babesgabetasun arrisku arin edo ertaineko egoeran dauden adin txikiko eta beraien familiei zuzendutako eskuhartze sozio-hezitzaile eta psikosoziala zerbitzua kontratatzeko baldintza teknikoak.

2.- ESKAINI BEHARREKO ZERBITZUAK

Honako zerbitzu hauek eskainiko dira:
-Eskuhartze psikosoziala: familia eta bakarkako terapia.
-Eskuhartze sozio-hezitzailea: familia eta bakarkakoa

3.-ZERBITZUAREN HARTZAILEAK

Oiartzunen erroldatutako babesgabetasun arrisku arin edo ertaineko egoeran dauden adin txikiko eta beraien familiak.

4.-ZERBITZUAREN HELBURUAK

Helburu orokorra

Oiartzunen erroldatutako babesgabetasun arrisku arin edo ertaineko egoeran dauden adin txikiko eta beraien familiei zuzendutako eskuhartze sozio-hezitzaile eta psikosoziala bideratzea.

Helburu zehatzak

Eskuhartze psikosoziala:

-Beharrezkoak diren aldaketak bultzatzea familia dinamikaren barruan, adingabeek testuinguru segurua izan dezaten, eta egoera horretan garapen osasungarria izan dezaten.

-Adingabe hauen gurasoek edo legezko tutoreek euren seme-alaben ezinegonean izan dezaketen erantzukizunaren gainean, kontzientzia hartzen laguntzea.

−Estrategia ezberdinak eskaini guraso edo familia inguruan heziketa ardurak dituzten beste helduei, arlo pertsonalean, emozionalean eta hezkuntza arloan. Estrategia horiek bizikidetza dinamika positiboak garatzeko eta modu eraginkorrean inplikatzeko.

-Halako egoeran dauden haurrei eta /edo nerabeei bizi izan dituzten esperientzia traumatikoak kontatu ditzaten laguntzea, bizi izandako horiek oztopo izan ez daitezen haien heltze psikoafektiboaren prozesuan (erruduntasun sentimendua baztertzea, autoestimua handitzea...)

ESKU26cd2d5f-438b-4532-bf3d-ffd434f21cb5

-Orientazioa eskaintzea gurasoei beren seme –alaben premia emozionalei arreta egokia eman diezaieten.

-Gaitasun pertsonalak eta sozialak sustatzea.

-Gurasotasun positiboa sustatzea.

- Komunikazio-trebetasunak hobetzea.

-Erresilientzia-prozesuak sustatzea, kalte emozionalak adingabeetan dituen ondorioak arintzeko.

- Eguneroko gatazkak konpontzeko trebetasunak hobetzea.

- Gogoeta pertsonalerako prozesuak sustatzea

- Norberaren emozioak eta besteenak onartzea eta lantzea.

Eskuhartze sozio-hezitzailea

-Haurretan edo nerabeetan egokitu gabeko portaerak prebenitzea eta/edo gutxitzea, gizartearen aldeko beste batzuk sustatuta.

-Gurasoei edo legezko tutoreei gaitasunak, guraso rolak eta heziketa jarraibideak ematea, haien seme-alaben oinarrizko beharrak betetze aldera; eta horiek egunez egun aplikatu daitezen.

-Familia bizikidetza hobetzeko eta ingurunean txertatzeko jarraibideak lantzea.

-Guraso-figurei heziketa-jarraibideak eskaintzea, ahal dela, familiaren etxean edota beste toki batzuetan.

-Akonpainamendu hezitzailea eskaintzea adingabekoei eta haien familiei.

-Familiari tresnak ematea eguneroko zailtasunei aurre egiteko.

-Ohitura osasuntsuak sustatzea: aisialdian, eskolan...

-Adingabeen, haien familien eta eskolaren artean harreman positiboak sustatzea.

5.-EGIN BEHARREKO LANAK

-Esku hartzeko proposamena lantzea eta kasuaren planean parte hartzea, Udaleko Gizarte Langile arduradunarekin batera.

-Onartutako baldintza teknikoak eta ekonomikoak nahiz epeak betez programa betetzea.

-Baldintza agiri honetan definitutako jarduketa-protokoloa errespetatzea eta betetzea.

-Esku hartuko duen taldeari familia aurkeztu ondoren, saioei ekitea, gehienez ere, hamabost eguneko epean.

-Esku-hartze prozesuan aldaketa esanguratsuren bat izanez gero profesionalen bajak, familia ingurunearen aldaketak, familia saioetara (ez joatea, bizikidetza unitatean dauden aldaketak…), berehala eman beharko zaio horren berri kasuaren arduradunari.

ESKU26cd2d5f-438b-4532-bf3d-ffd434f21cb5

-Esku hartzen ari diren profesionalak modu egonkor eta egokian jardun dezaten arduratzea.

-Profesionalen bat aldi baterako ezintasun egoeran badago, prestakuntza profesional baliokidea duen beste profesional batek ordezkatuko du.

-Kasuaren planaren ebaluaziorako zehazten diren bileretan parte hartzea eta aurretiaz eman beharreko txostenak ematea.

-Eskatutako kasuetan baloraziorako laguntza teknikoa ematea.

-Egindako esku hartzearen inguruan eskatzen zaizkion txostenak egitea eta aurkeztea.

-Gizarte zerbitzuei, adingabeen babesari, eta datu babesari buruz indarrean dagoen araudia ezagutzea eta betetzea.

-Familiekin komunikazio eraginkorra bermatu beharko dute, azken horren ama-hizkuntza edozein izanda ere. Komunikaziorako bitartekoak esleipendunaren kontura izango dira.

-Egindako esku hartzearen inguruan, eskatzen zaizkien txostenak egitea, indarrean dagoen araudiari jarraiki.

-Arrisku eta babesgabetasun egoeren larritasuna baloratzeko tresnak ezagutzea eta erabiltzen jakitea.

-Egindako esku-hartzeak justifikatzen dituen urteko memoria egitea.

-Familia bakoitzari buruzko txosten bat egitea urtero, non alderdi hauek zehaztuko diren: familiarekin landutako helburuak, familiaren egoeraren bilakaeraren adierazleak eta jarraitzeko proposamena dagozkion helburuekin edo esku-hartzearen amaiera lortutako helburuekin.

-Urteko txosten bat egitea, datu orokor hauek jasotzen dituena: sexuaren arabera bereizitako datuak, artatutako familien tipologia, artatutako familia kopurua, alta berrien kopurua, familia-profila eta landutako zailtasuna, alderdi psikosozialean eta sozioedukatiboan lan egin duten profesionalen kopurua, familiek egindako bilakaera: alta terapeutikoen kopurua, bajak, etab., identifikatutako zailtasunak eta hobetzeko proposamen zehatzak.

6.-ESKUHARTZE PROGRAMAREN PROZEDURA

Jarduera protokoloa Esko Jaurlaritzako 152/2017 Dekretuan argitaratutako BALORA tresnan jasotako jarraibideetan oinarritutako da.

-Oinarrizko prozesua Udaleko Gizarte Zerbitzuetan babesgabetasun kasua atzeman edota jakinarazpena jaso eta gero hasiko da.
Harrera eta ikerketa hasierako fasean, udaleko gizarte langileak jakinarazitako egoera hori Gizarte Zerbitzuei dagokien edo egokitu dakiekeen erabakiko du. Baita kasuaren larritasunaren hasierako ebaluazioa egitea ere, eta haren arabera aurrera eraman beharreko prozesua finkatzea. Ikerketaren oinarrizko helburuak babesgabezia egoera dagoela egiaztatzea, haren larritasuna, errepikatzeko aukerak eta adingabekoaren osasunak eta bere bizitzak duen arriskua baloratzea, eta premiazko babes neurriak hartzeko beharra baloratzea dira.

ESKU26cd2d5f-438b-4532-bf3d-ffd434f21cb5

· Udaleko Gizarte langilea egoera ikertu eta baloratzeko familiarekin harremanetan jarriko da, eta Gizarte Zerbitzuen inguruko informazioa emango du, zerbitzuaren eskumenei eta ardurei buruzkoa eta erreferente modura aurkeztuko da.

- EBALUAZIOA: Gizarte langileari dagokio tratu txarra agertzeko edo mantentzeko eta beste arriskua eragin duten arrazoiak zeintzuk diren identifikatzea. Baita familiaren gabeziak eta gaitasunak zehaztea ere.

- BALORAZIOA: Gizarte langileari dagokio gurasoen kontzientzia maila eta aldaketarako motibazioa aztertzea. Baita egoera aldatzeko aukerak aztertzea. Gurasoak birgaitzeko pronostikatzea eta hartarako denbora epeak aurreikustea.

-Familiarekin batera, udal gizarte langileak sare lana egingo du egoeraren balorazioa egin ahal izateko, eta Balora tresna erabiliko du (152/2017 Dekretua, maiatzaren 9koa).

-Balorazioaren bidez, egoeraren larritasun maila neurtu eta egiaztatuko da eta mailaren baitan, zehaztuko da eskumen eta ardura: Udal Gizarte Zerbitzuetara bideratuz edo Lurralde mailako Gizarte Zerbitzuetara. Hain zuzen ere, arrisku arina eta ertainaren kasuetan Udal Gizarte Zerbitzuen ardurapean geratuko da, eta larria edota babesgabetasun kasuetan Lurralde Mailako Zerbitzuen ardurapean geratuko da.

-Esku hartzea martxan jartzea

-Oinarrizko gizarte langileak balorazioaren berri emango dio familiari eta kasuaren plana diseinatuko du. Planean diagnostikoa, landu beharreko helburuak, lan estrategiak eta erabili beharreko programak zehaztuko dira. Kasuaren arduraduna Udaleko gizarte langilea izango da.

· Planak Udal Gizarte Zerbitzuetako lan taldearen oniritzia jaso ondoren, eta proposatutako programaren baitan, gizarte langileak enpresa esleipendunari aurkeztu eta eskuhartze proposamena luzatuko dio.

· Oinarrizko Gizarte langileak, enpresa esleipendunaren lan talde profesionalarekin batera kasuaren plana adostuko du. Ondoren, talde profesionalak bere balorazio eta proiektua egiteko, gehienez, zortzi ordu izango ditu, eta udal gizarte zerbitzuetara bidali beharko du.

· Gizarte langileak planaren berri eman eta enpresa esleipendunaren profesionalen aurkezpena egingo dio familiari.

· Gizarte langileak eta profesionalak plana martxan jarriko dute familiaren onarpena lortu ondoren. Familiak onarpena emango ez balu, jasotako adierazleak larriak ez badira, egoeraren jarraipen informala egingo litzateke, familiaren onarpena lortu arte. Egoerak larrira joko balu, familiari informatu ondoren, Lurralde mailako zerbitzuetara bideratuko litzateke.

· Hiru hilean behin kasuaren plana berrikusi eta egoeraren jarraipena egingo dute gizarte langile arduradunak eta laguntzen duten profesionalek. Egoeraren jarraipena egiteko esku-hartze taldeak indarrean dagoen araudiari jarraituz txostena egin beharko dute

· Esku hartzearen amaiera.

ESKU26cd2d5f-438b-4532-bf3d-ffd434f21cb5

-Esku hartze fasea amaitzean, esku hartze lan taldeak, esku hartzearen bilakaeraren azken txostena aurkeztuko du udal gizarte zerbitzuetan. Txostena indarrean dagoen araudiari jarraituz egin beharko dute.

· Udaleko gizarte langile arduraduna egongo dira: eskuhartzea bukatutzat ematea, beharrezkoa denean eta esku hartze taldeak familiari azken txostenaren berri emango diote. Honako aukera ezberdinak egoeraren jarraipenaz informatzea, edota Lurralde mailako zerbitzuetara bideratzea (Gipuzkoako Foru Aldundia) eta honi buruzko azalpenak ematea. Azken kasu honetan, gizarte Langile arduradunak eta esku hartze taldeak, elkarlanean, Gipuzkoako Foru Aldundira bideratzeko txostenak egingo dituzte.

7.-LAN TALDEAREN OSAKETA

Lan taldeak, gutxienez, psikologo eta gizarte hezitzaile batez osaturik egon beharko du.

Psikologoa:

· Psikologiako lizentziatura edo gradua, eta Psikologoen Elkargo Ofizialeko kide izatea.

· Arrisku egoeran dauden adingabeko eta beraien familiekin, esku hartze psikoterapeutikoan, gutxienez urte beteko esperientzia. Horretarako, herri administrazio programetan esparru horretan lan egin dutela egiaztatu beharko dute.

· Zerbitzua euskaraz emateko ahalmena frogatu beharko du (Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila).

Gizarte hezitzailea:

· Gizarte-hezkuntzako, gizarte-laneko edo antzeko beste titulazio bateko diplomatura edo gradua.

· Arrisku egoeran dauden adingabeko eta beraien familiekin, heziketa lanetan gutxienez urte beteko esperientzia izan behar du.

·Zerbitzua euskaraz emateko ahalmena frogatu beharko du (Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila).

Adingabeen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa(Haurren Babesari buruzko uztailaren 28ko 26/2015 Legeak eta Boluntariotzari buruzko urriaren 14ko 45/2015 Legeak aldatua) betez, kontratuari atxikita dauden eta adingabeekin harremanetan dauden langile guztien sexu-delituei buruzko zigor-aurrekarien ziurtagiri espezifikoak aurkeztuko dira.

8.-ZERBITZUA EMATEKO LEKUA

Udalak bulego bat jarriko du enpresa esleipendunaren talde profesionalaren eskura, kontratuaren xede den psikoterapia jarduera garatzeko, beti ere enpresa esleipendunaren identifikazioa bistan egon beharko duelarik. Bulego hori ez da enpresak bakarrik erabiltzeko izango . Honi dagokionez, udalaren kontu izango dira argi horniduraren eta ur-horniduraren gastuak, baina ez telefono-horniduraren ak.

Enpresa esleipendunak Udalak bere esku jarritako lokala eta baliabideak behar bezala kudeatu eta erabili beharko ditu. Esku-hartze sozio-hezitzailerako saioak esku-hartzen ari den familiaren etxebizitzan, edo hala badagokio, kalean edo une bakoitzean egokiena den lekuan, esku-hartzearen helburuei jarraiki.

ESKU26cd2d5f-438b-4532-bf3d-ffd434f21cb5

OIARTZUNGO UDALA

9.-ESKUHARTZEAREN GEHIENEKO IRAUPENA

Familia bakoitzarekin gehienez 24 hilabeteko eskuhartzea egin ahal izango da, hala ere gizarte langilearen justifikazio txostenarekin eta salbuespen gisa eskuhartzea luzatu ahal izango da.

Oiartzunen, sinaduraren egunean.

Elektronikoki sinatua

EUSKAL HERRIA

Nork Sinatua / Firmado por: MYRIAN GOICOECHEA ZAPIAIN - 15251395A
2025/04/10 15:17:29

EKS | CSV: **ESKU26cd2d5f-438b-4532-bf3d-ffd434f21cb5**

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310